

DATUAK EZ DIRA BEHARKO LUKETEEN BEZAIN ONAK

Aitziber Sarasola

AEK

Helbide elektronikoa: aitziber-s.j@aeek.org

Hasteko eta behin zorionak eman nahi nizkieke beste behin ere Soziolinguistika klusterreko kideei horrelako lana burutu izanagatik, izan ere beste behin ere datuok eskuartean edukitzeak zirrara berezia ekartzen baitu. Zirrara, etsipena, kezka, poza eta denetarik topatu ahal dugu geure barnean beste urte batez etsamin zail honen emaitzak eskuan jaso ondoren. Zirrarak baino beste baterako utzi beharko ditugu, izan ere, honakoan datuak serio aztertzeke ahalegina eskatu baitigute eta ez hainbeste geure barne emozioetan esnatu dituzten sentimenduen azalpena.

Dena dela eta 5. kale neurketa honen emaitzen nondik norakoak aztertzen hasi baino lehen metodologia eta egiteko moduen inguruan kezka adierazi nahiko nuke ez ditugulako azken kale neurketaren emaitzak pasatu eskualdeka, euskararen lurralde honetan beti nahi izaten dugu hemengo eta hango errealitateekin alderatu geure burua eta oraingo honetan makina bat eskualde txikitako biztanleok ez dugu aukerarik izan geure mintza joerak aztertuak izan daitezen, gerorako utzi beharko da lana medioak medio, baliabideak izan arte azterketa horiek burutu ahal izateko.

Behin sarrera hestu hau eginda eta datu anabasa honi nolabaiteko forma bat emateko ahaleginetan datu oso kezkagarria sumatu dut. Kezkagarria idatzi dut baina beste alde batetik adierazgarri eta osasungarri esan nezakeen, baina kezkagarria iduritzen zait lehenik. Lehenengo aldiz euskara-gaztelera-frantsesera ez diren hizkuntzen neurketak datu garrantzizkoa ekarri du. Jakina da euskararen herrian eta bereziki hego Euskal Herrian bertara bizitzera heldu den migrante askoren etorrera. Euskalgintzako eragileon artean etorrera horren zenbatekoei buruz askotan mintzatu izan gara, ze kopurutan eragiten ote dion euskarari, edo zenbat jendez ari ote garen. Uneotan esaterako Nafarroara heldu den migrante horien kopurua %23a dela esan dezakegu Nafarroako kasuan. Horien guztien artean esaterako 2006an %47 izan da amerikar jatorrikoa (gaztelera gehienbat), %21 afrikar jatorrikoa (jatorrizko hizkuntza) eta %30 europar jatorrikoa (jatorrizko hizkuntza). Egun Iruñean ageri diren datuen arabera, helduen artean esaterako gehiago entzun daiteke kalean

***Oraindik ezagutza handia
den herrietan beheranzko
joerak nabarmentzen ari
dira eta ezagutza
makurragoa den lekuetan
ere ezagutzaren datuak
gero eta handiagoak izan
arren ez baitugu lortzen
euskara normal erabiltzea
bizitzaren esparru
guztietan.
Oraindik ere leku batzuk
bereziki babestu
beharrean gara eta hori ez
da gertatzen ari.***

euskara-gaztelera-frantsesera ez diren hizkuntza horietan euskaraz baino. Datu hau oso ikusgarria iduritu zait. Egia da esaterako hain zuzen ere beste herrialdeetatik heldu den jende hori askotan kalean errazago ikusten dela etxean telebistari so dagoen euskalduna baino, baina ziurrenera poltsikuko soziologia egiten hasteko arriskuan erortzen ari naiz eta jarrai dezadan beste alde batetik.

Ez nioke heldu nahi hainbeste gorrotatzen dudan jarrera ezkorriari, baina datuori so hasi naizen bezala eskuan nuen harkatza datu ez onak, datu ez atseginak markatzen hasi da etenik gabe. Datu orokorrak begiratu gero esaten ahal dugu Gipuzkoa eta Araban eman dela proportzioen goratze txiki bat, baina goratzea, ez horrela gainerako herrialdeetan, Bizkaian Iparraldean eta Nafarroako kasuaz ari naiz. Nafarroan datuek mantentzeko joera erakutsi dute handitzen beharko luketenean. Bizkaian ere, datuak ez dira inolaz ere beharrezko igoera adierazten dutenak. Bi errealitate administratibo, hizkuntzaren bi kudeaketa ezberdin, baina datuok ez dira trunkatzen, ez dira bestelakotzen. Egunotan nonbait irakurri dut euskarak Nafarroan inoiz bizi izan duen egoerarik makurrena bizi duela, baina neronek, ikerketa handirik egin ez dudanez honek gauza bera esan nezake euskararen lurraldearen gainerako eremuetarako ere. Behintzat Bizkaia eta Iparraldearen kasuan. Esan nahi baitut, industrialguneen hiri handietan oraindik gaintutako gabeko arazo gehiegi ditugula batetik eta biztanleek hustutzen ari den Iparraldean euskal hiztunen heriotzak galerara daramala euskal hiztunen kopurua galgarik gabe.

Nafarroa Garaiko datuei helduko diet berriz ere. Adinen arabera sailkapenean haurren euskara mintzatzeko joera motelduz doala ematen du, gazteen joera aldiz goranzkoa da, baina tarte honetan esaten ahal dugu %8,5 izan baldin bada haurren artean heldu zaigun datua, %6,9ra jaisten dela gazteen kasuan. Dena dela aipatu beharra dugu datuak nahiko eskasak direla oraindik orain eta urrun gaudela Gipuzkoako %49,6az. Baina datu honek irakurketa bera izaten ahal du Euskal Herri mailan ere Haurren euskara erabilera %20,8 den garaian gazteena %13,8ra jaisten da. Bistan da hor zerbaitetik kale egiten duela. Euskalgintzan behin eta berriz esan da eskolak euskaldundu egin behar duela etab. Bistan dena da euskara hizkuntza irakasteaz gain, jarrereaz ere mintzo garela, adin batetik aurrera euskaraz mintzatzea edo ez erabakitzearen garaian tresna asko beharko baitu banakakoak benetan euskara erabiltzea erabakitzearen. Zentzu honetan aztertu egin beharko dugu, batetik zein den gurasoen ematen ahal duten ereduak, zein diren gazteek erabiltzen dituzten kodeak eta kode horien artean zein diren euskaldunak. Eta bestetik nola ez zein baliabide dauden jarriak gizartearen administrazioen aldetik gazte horiek eskura dutena euskaraz izan dadin: lanbide heziketaz ari naiz, unibertsitateaz, etab. luze bat.

Oro har eta irakurketa orokor bat egite aldera, emaitzak ez ditut nik sobera ongi baloratzen izan ere portzentaien goranzkoa ez baita gerta-

tzen kasu askotan. Oraindik ezagutza handia den herrietan beheranzko joerak nabarmentzen ari dira eta ezagutza makurragoa den lekuetan ere ezagutzaren datuak gero eta handiagoak izan arren ez baitugu lortzen euskara normal erabiltzea bizitzaren esparru guztietan. Oraindik ere leku batzuk bereziki babestu beharrean gara eta hori ez da gertatzen ari. Nafarroa Garaiko datuetara etorrira berriz ere Vasuenceren legeak berak oinarri hartzen duen banaketak ere ez du bermatzen euskara ofiziala behar lukeen lekuetan hala izan dadin, datuak begiratzea besterik ez dago euskararen erabilera datu orokorrak ezagutza handia den eremuetan 1993ko kale neurketaren azpitik ageri baitira, zer esanik ez euskarak babes hori ez duen eremuetan. Administrazioak eta Euskal Autonomia Erkidegoaz ari naiz oraingoan, behin eta berriz esan izan digu azken aldian euskaldunon utzikeria dela erabilera datuak aldrebesten dituen. Ez nator bat inondik inora horrekin, hainbeste lan egiteko badugu, egiten ez dena eta benetan serio hartzen ez dena, eta horren ondorio dira neure ustez datu hauek. Motel ari da euskara galdu dituen eremu eta lurak berreskuratzen, ezintasun handiagoekin aukerekin baino. Hori da 5. kale neurketa honen datuek adierazten dutena aurtengoan ere.■